

HERNANIK kronika

2003 urtea
Ekainak 25
Asteazkena
Alea: 806
www.kronika.net

Gaur Koadrilen Eguna eta San Joanetako lehenengo Axeri Dantza

■ Gaur, txaranga bat baino gehiago ibiliko da herrian egun guztian zehar, koadrilaz inguratuta ■ Axeri dantza goizeko 09:00etan da Sokamuturraren atzetik ■ Orain artekoan, jende dezente dabil festetan.

GAUR, San Joan bigarrena, Koadrilen eguna da. Goizetik txarangak ibiliko dira kaleak girotzen eta herriko koadrila askok bazkaria dute jatetxe, elkarte edo kalean bertan. Goiztiarrenek aurten- go San Joanetako lehenengo Axeri Dantzan parte hartze- ko aukera ere izango dute eta jeikitzezko perezak geratu di- renek bihar eta etzi ere ba- dute aukera, aspaldiko ohitura zaharrari segida eman, korrika pixka bat egin eta bizkarrean berotualdi bat hartzeko.

Jende dezente

Orain artean jende dezente bildu da San Joanetara. Aste- buruan asko ibili da iluntze- an batipat, eta horrek pittin bat baretu egin du agian astez herrira etorri den jende kopurua, eta ez da kabitu ezineko betekadarik izan. Jende asko bildu duen ekital- dia San Joan suarena izan da aurren ere. Gudarien plaza jendez gainezka zela dan- tzatu dira aurreskua eta San Joan Kantaita, eta erretzeko bildur haundirik gabe ibili dira dantzariak, azken urte- tak surik txikitxuena izan baita aurtengoa. □



San Joan Kantaita suaren bueltan joan den astelehenean.



Hernaniar dantzari gazteek demostrazioa egin zuten bukaeran.

Betikoak taldeak 25garren urteurrena ospatuko du gaur

BETIKOAK taldeak 25garren urte- reneko omenaldia jasoko du gaur Uda- letxean, eguerdiko 12:00etan. Betikoak taldea 25 urtean atera izan da San Joan bigarrenean, koadrila egunean. Gaur ere bazkaria eta txaranga izango dituzte, Hernaniko kaleetan barrena. □

1978an Elorrabin hil zirenen aldeko omenaldia eta estropada gaur

AURTEN dira 25 urte Elorrabin estropada ikusten zeudela zubia erori eta 6 lagun hil zirela. Hildakoaren omenez meza izango da 11:00etan monolitoan eta lore eskaintza egingo zaie senitartekoei. 11:30etan arraunean ibilitako lau generaziok elkarren kontra neurituko dituzte indarrak. □

Asier Hena eta Maitane Lazkano txapeldun dantza suelto txapelketan

Atzo jokatu zen Hernanin Kriskitina taldeak antolatutako dantza suelto txapelketa eta Bergarako Hena eta Lazkanok irabazi zuten. Bigarren, Aitor eta Amaia Parrondo hernania- rrak gelditu ziren eta hirugarraren, Jon Ander eta Edurne Azpitarte. Jantzirik dotoreenaren saria Xabier Segura eta Lierni Martiarena hernaniarrentzat izan zen. □

Profesional mailako pelota partiduak ostiralean kirolegian

DATORREN ostiralean, profesional mailako pelota partiduak izango dira kirolegian, 18:00etan, Pelota Elkarteak antolatuta. Lehen partiduan Barberito VI-Elola/Oiaga-Gabarri neurtuko dira eta estelarrean Alustiza-Arretxe /Esnal-Errandonea. □


EGITARAUA

EKAINAK 25, ASTEAKZENA

- 06:30 Ur Gerra Gazte Asanbladak antolatuta.
07:00 Diana, Musika Eskolako dultzaineroen eskuak.
07:30 Sokamuturra
08:00 Gosari herrikoia Plaza Berrian, Txosna Batzordeak antolatuta.
09:00 Axeri Dantza
09:30 Bola, Floridan.
10:00 Toka, igel, bolo eta poto lehiaketa Jubilatu Etxean.
11:00 Meza Elorrabin 1978ko ekainaren 25ean hildako alde.
11:00 Azkona taldearen emanaldia haurrentzat, Biteri plazan.
11:00 Betiola-Elizatxo txarangaren irteera.
11:30 Estropadak Elorrabin.
12:00 Betikoak taldearen 25 urteurren ospakizuna, Udaletxean.
12:00 Betiola-Elizatxo txarangaren 50 urteurren ospakizuna Udaletxean.
12:00 Koadrilen jeitxiera Gazte Asanbladak antolatuta.
12:00 Erraldoi eta buruhaundi konpartsia.
14:00 Herri Bazkaria Plaza Berrian (Gazte Asanbla)
17:00 Kalejira GA.
17:30 Umeatzako zezenak, Urumea ikastola aldamean.
18:00 Haurrentzako jokoak kirolegi ondoan, Kulki taldearen eskuak.
19:00 Betikoak txarangaren irteera.
20:00 Mariachi Enperadores taldea kalez kale.
23:00 Laiotz taldearekin dantzaldia.
23:00 Mariachi Enperadores taldea plazan.
23:00 DJ Talo Molotoffeko txosnan.
24:00 Incansables txarangaren irteera.

Txokolatea eta bizkotxoa

TXOSNA Batzordeak gosari herrikoiak antolatu ditu gaupasero eta goiztiarrentzat. Atzo txorixoa, gazta eta sagardoa izan zen aukeran eta gaur txokolatea eta bizkotxoa, 08:00etan Plaza Berrian. □



BIKAIN
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Egunero ogia beti bikain

SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkologa 19 - Tel.: 943 331487
20120 Hernani

EDARITEGIA

Ogitartekoak eta pintxoak
Gora San Joan!
Ezkia 5 - HERNANI
943 55 20 07

SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

SEAT ETA OPEL ZERBITZU OFIZIALAK

Autoak SEAT OPEL Auto

URUMEA Autoak - Auto HERNANI

Kotxe berri eta aukerako salmenta
Tailer mekanikoa eta elektrizitatea

Urumea Autoak
Akarregi auzoa 25, 943 332274

Finantziazoa
Karrozeria

Auto Hernani
Akarregi auzoa 25, 943 552546

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel.: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Jokalari eta antolatzaileak lehengo igandean, sariak banatu ondoren.

Urkizu eta Ruiz Hernaniko Paleta Gomako txapeldun. Euskal Herriko paleta goma jokalari onenek txapelketa jokatu dute Hernanin eta joan den igandean izan ziren finalak. Txapeldun Urkizu eta Ruiz gelditu dira Lasa eta Arozenari 30-24 irabazita. Hirugarren Etxegia eta Mendizabal gelditu dira Goiatz Manzisidor eta Amaia Martinezi 30-29 irabazi baitzioten 3-4 postuak erabakitzeko partiduan. Aurtengoa izan da Hernanin jokatu den lehen txapelketa eta maila oso ona erakutsi dute jokalariek. □

JASOTA BEZALA

CCOOko delegatuei eta Hernaniko herriari

Ekainaren 18ko Kronikan ateraz kartaren aurrean, eta intentzio txarreko komentarioak ikusita gauza batzuk argitu nahi ditut, liskarretan sartzeko gogorik gabe.

LAB sindikatu asanblearioa izan da, da eta izango da. Horregatik LABeko kideek beharrezko asanbleak konbokatu ditugu akordio hauetara iristeko, horretarako geneuzkan orduak agortu arte. Asanblea hauetatik atera diren akordioak oso argiak dira: Klinikako auxiliarren % 64ak onartu du apirilaren 1ean kalendario berri bat hastea eta kalendario honek kolektibo guztiaren lan baldintzak parekatu ditu. Garbitzaileen artean % 100ak onartu du, maiatzaren

lean kalendario berria hastea.

Kalendario hauek asanblea batean boluntario ateratako eta asanbleak berak berretsitako pertsona talde batek negoziatu ditu. Ekainaren 13an sinatutako akordioa negoziazio horien ondorio da, eta Enpresa Komiteko Lehen-dakaria naizen aldetik akordioa sinatzea besterik ez dut egin.

Apirilaren 30ean hauteskunde sindikalak izan dira. Kalendario berri guztiak aprobatuak daude eta LABek gehiengoa lortzen du berri ere Komitean, CCOO eta ELAKO kideak lista bateratuan aurkeztu arren. Emaitzek argi utzi duenek gehienek zer iritzi duten.

Diputazioko akordioa eta lantegiko lan baldintzen akordioa nahastea, herria konfunditzeko

bidea jartzea da.

Akordioko 4garren puntuak hau dio textuak: Akordio honetan zehazten diren lan baldintzen inguruko **Aldaketak**, akordioa sinatzen duten aldeen arteko adostasunez eman beharko dira. Aldaketa hauek Patronatuko Zuzendaritza Batzordearen eta Langileen Asanblearen oniritzia beharko dute.

Antiasanblearioak garela esata eta behar den garaitik aparte asanblea bat situatu nahi izatea, herria nahastu nahi izatea da.

Nahi duenak ulertu dezala. Herri honetan denok ezagutzen dugu alkar, egia nork esaten duen eta bazterrak nork nahastu nahi dituen jakiteko adina.

Mertxe Gastesi

IRUNTXI
Ondo pasa
San Joan
jaiak
Kardaberaz 11 - Tel.: 943 55 57 24

Allianz
ASEGURUA
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Gora San Joan!
Telf.: 943 557 326
656 735 109

LEOKA TABERNA
Kardaberaz 3, HERNANI
EUSKAL PRESOA
San Joan
zoriontsuak
opa dizkizuegu
Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679
20120 HERNANI

Gora San Joan!
EDARITEGIA
JOMXAP
Kale Nagusia, 7
55 00 32
HERNANI

laket
Jantzi eta osagarriak
Kardaberaz, 17 • Tel.: 943 330 679
20120 HERNANI
San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

SANTA BARBARA
PEUGEOT
SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 Tel.: 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzen ditugu
Jeep Cherokee 2.5
SAAB 2000 Coupe
Fiat 1 -
Opel Astra
Renault Megane Coupe
Renault Express
Lada Niva
TDI
Diesela
Diesela
Sport
Diesela
Gasolina
SS-BB
1.995urtekoa
GI-AY
NA-AK
SS-BJ
SS-AS
SS-AP
1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe
...eta hainbat kotxe merke

IRUNE
Estetika
Depilazioak
Betileak
Masajeak
Aurpegi tratamentuak
San Joan
zoriontsuak
opa dizkizuegu
Makilajea
Manikura
Pediakura
Solariuma
Kardaberaz 51, behe
Tel.: 943 55 71 13

ATLETISMOA

Miguel Angel Garin eta Jose Mari Garin dotore Espainiako beterano txapelketan

TARRAGONAN jokatu berri diren beteranoen Espainiako txapelketan oso ondo ibili da hernaniar bikotea. Pentatlo-nean gainerako kategoria guztiak baino puntu gehiago atera eta urea lortu du Miguel Angel Garinek 50 urtez gorakoetan. Triple salto-

an, luzeran eta altuera salto- etan ere urea lortu du Miguel Angel Garinek.

Bestalde, Jose Mari Garin ere dotore ibili da 75 urtez gorako kategorian. 2000 metro obstakuloetan urea lortu du eta Estatuko markatik oso gerto gelditu da hernaniarra. □

ARRANTZA

Mikel Marin txapeldun Txantxangorriko arrantza txapelketan

TXANTXANGORRIK antolatuta gazteentzako arrantza txapelketa egin da Urumean, amurraiaurretik askatuta. Irabazlea Mikel Marin izan da eta bigarren Iñigo Bereziar-

tua. Alebinetan Unai Cabrerak irabazi du eta benjaminetan Jaione Berazak. Arrantza txapelketan Hernaniko 37 gaztek hartu dute parte aurteno edizioan. □

† M^a SOLEDAD ODRIA AGIRRE ANDEREKA

Astelehenaren 23an hil zen, 61 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere senarra: Adolfo Ojeda Arribillaga; seme-alabak: Ixiar eta Angel Ormazabal, Iñaki, Nerea eta Iñaki Pascual eta Egoitz eta Sonia Pérez; bilobak: Maddi eta Iker; anai-arrebak: Antoni (Manuel Arranberriaren alarguna), Juanita, Lourdes (Iñaki Dorronsororen alarguna) eta Iñaxio; ezkon anai-arreba, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaizkela ASTE-AZKENA 25ean, arratsaldeko ZAZPIRETAN HERNANIKO (FLORIDA) SAN JOSE LANGILEAREN parroki elizan, egingo den hiletarra. Aldez aurrelik, mila esker.

Hernanik, 2003ko ekainaren 23an
Oharra: Gorputza beila DONOSTIALDEKO TANATORIOAN dago.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 332388
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
Tel.: 943 554892
- Gauzez: Oa
Usurbil. Poligono 1, 1
Tel.: 943 376076

URGASKA, S.L.
Gora San Joan!
Gas instalakuntza
Material salmenta
K21
* Asistentzia teknikoa,
gas eta berogintzan.
* Gas propano, butano
eta naturala: mantentua
* Iturgintza
Aristizabal 9 Behea
Tel.: 943 33 37 40

IZARRE JETETXEA
San Joan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Pol. Lastaola
-Tel.: 943 55 0640-
HERNANI (Gipuzkoa)
ETXARRI
SAN JOAN JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU
Juan de Uribe etorb. 8
Tel. 943 33 61 16
www.etxarri.com